

Denboren zeinua

Es curioso, siempre hay lugares a los que se quiere llegar, lo mismo que siempre quedarán lugares a los que se quiera volver.

PEÑA SANTIAGO

Aitatxi eta amaxiren baserrian gertatu zitzaidan. Ez dakit zenbat urte izanen nituen, hamar, zortzi..., baina bai orduan bagenuela zakur ttiki bat, erabat beltza, eta amaxik “kattakume” deitzen zuena.

Eta zakur horrekin nenbilarik gertatu zitzaidala segur nago, zeren maingua etorri zeneko bere zaunkak entzuten ditut oraindik. Gainontzekoa ez dut ongi gogoratzen. Ez dakit neguan ala udan izan zen, baina seguraski udan erran beharko nuke, hura baitzen gehien egoten nintzen urte-sasoia eta.

Amatxi eta aitatziren baserria, gaur galdua, Urre bailararen giblean zegoen. Niretzat odisea ttipi bat zen hara joatea, ezen pastu behar izaten nituen borda eta baserri aunitz, eta egiten bainuen, gutxienez, bost ordutako bidea. Attak Beratik Amaiurrerat eramaten ninduen goizean-goiztik. Eta nik, berak hainbertzetan bezala, hartzen nuen Itzulegi lepoko kaminua, eta jarraitzen nuen goitzen pagoen artetik. Segitzen nuen erreka behitzen bere ertzetik Utzalketa etxerat ailegatzeko, eta azkenik harrizko zubi zaharra igarotzen nuen, Arretxeko-borda pastu eta gure baserrirat iritsi arte.

Hori zen nire oporretako lekua, eta hainbertze gustatzen zitzaidan, ze nahiago nuen han bizi itsas ondoko lekurik aberatsenean baino. Hura bai zen hiriaren arras desberdina. Hura zen animalien eta zomorroen bizitokia. Hura zen paradisua. Eta bisita bat etortzen zelarik, erraten zioten amatxiri:

-Ez al dun aspertzen muttiko hau?

Eta berak ezetz erraten zuen sorpresa aurpegiaz, berarentzat ere harritzekoa baitzen nik harako izaten nuen kerentzia. Eta aunitzetan galdetu egiten zidan:

-Ez al zara aspertzen, muttikoa?

-Ez amatxi, nago hagitz gustura.

-Aspertzen zeralikan, errazu, eta joanen gara attarengana.

-Lasai, amatxi.

Zenbat aldiz egingo genuen solas hau amatxik eta biok! Eta bera hil zenean ere akordatzen naiz, nik erran nuela han geratuko nintzela baserria zaintzen eta, ezin zela erran zidatelikan, hartu nuen mina ez zaidala urte guzti hauetan pastu. Orain,

amatxi ez dela, eta aitatxi lehenago joan zela, nabari dut bien falta, ezen jada galtzen baituzu zure izatearen parte handi bat, ez zarela inoiz gehigo biloba, eta ez duzulako bordara bueltatzerik, bidea itxi eta hiltzen utzi zuen bati saldu ziotelako.

Horregatik agian akordatzen naiz hango gauzez, eta horregatik ere gogoratzen dut egun bitxi hura.

Aitatxi joana zen zelaietara lanera, eta amatxi ez dakit non zegoen, gertu ibiliko zen ala ez. Eta ni nengoen zakurrarekin, Kattakumerekin jostatzen. Ariko nintzen sagarrondoetara igotzen, zeren igarotzen baitnituen horrela goizeko ordu bizkorrak, lehendabizi sagarrera goitu eta gero zuhaitz handiangoetara joaten nintzelarik. Saiatzen nintzen etxe atzeko intxaurrera igotzen, baina sobera handia zen niretzat, eta halere saiatzen nintzen goitzen, eta banuen intxaurrarekin zera berezi bat, erronka bat eta eztabaida bat...

Egun hartan hala ginen zakurra eta biok: ni nire gorputz baldarra igotzen, besoak eta gerria mugitzen, hankak eta buruaren gainetik eta indarka eta mareo hori, bizirik zauden zeinua; eta zakurra, aldiz, niri begira, alde batetik bertzera mugitzen zelarik. Nire amatxik baino gehigo erreparatzen zidan, hark zuen izu bat edo ni erortzeko eta ikusten ninduelarik dilindan eta hedatuta jartzen zen zaunka egiten berak zuen era berezian.

Horregatik harritu ninduen nire konpainia –izaten zuen bakarra- utzi eta norbaitengana joan zela zaunka egitera.

Eta begiratu nuenean, baserriko atearen ondoan ikusi nuen gizon zahar hori, amatxi baino pixkot gazteago zena.

-Zuena al da –erran zuen zakurra seinalatuz.

-Bai –erantzun nion, eta zuhaitzetik jaitsi eta beragana joan nintzen Kattakume lasaitzera.

Gizonak burua soila zuen eta bota oso zaharrak. Eta beztitzen zuen anorak urdin bat, garai haietan ikusten ez zena eta gero modan egon zena. Gainerakoan nahiko ttikia zen gizona, eta aurpegi zabal eta irrifartsukoa. Segituan hartu nion jende onaren traza, ezen galdera estraino bat atera baitzitzaidan:

-Botak apurtuta dauzkazu?

-Bai –erran zuen barrezka-. Baina horrela ditut azken urtean ere.

-Eta ez dituzu aldatu behar? Aitatxik baditu zapata zahar batzuk...

-Ez, mutiko. Eskerrik asko. Baina hauek gustatzen zaizkit. Hauek dira nire betiko botak.

Nik ezin ulertu keinu bat egin nion.

-Orain badire bota berriak, hirian ikusi ditut amarekin.

-Denboren zeinua baita –erran zuen.

-Denboraren zeinua?

-Bai.

-Eta zer da hori?

-Ba... zail da esplikatzen...

Gizonak eseri eta motxilatik txokolatea atera zuen. Orduan igarri nion bere ondoan zeraman makilari lehen aldiz.

-Batuetan –hasi zen niri begira –gizakiak egiten ditu gauza estrainoak. Egiten ditu bide zabal eta itsusiak, eta bide horiekin tapatzen ditu mendiak eta desagertzen dira kaminu zaharrak. Eta isten ditu eta ja ezin da inor pasa.

-Bai –esan nuen deus konprenitu gabe.

-Eta hemen dituzuen zuhaitz hauek mozten ditu, baina ez ardiei jana emateko, zeren ardiak orain dira milaka, baina etzi izango dira ehun, eta etzidamu hamar. Ez: egiten du pinua hazi dadin basoa janez, eta bilobari utzi behar zaiona deusezten du basoa deuseztean.

-Hemengo basoa?

-Hemengoa ere. Hau baita –mapa atera zuen,- Urbakura errotaren ingurua, ezta?

-Ez dakit. Amatxi etortzen delikan errango dizu, baina baietz uste dut.

-Bai. Nik ere. Bestela gaizki nindoake.

-Nora?

-Urre bailarara.

-Ah.

-Zeren txikitatik nahi izan dut hara joatea.

-Bai?

-Bai, zure edadea nuenetik. Begira: aitari laguntzen nion mendian ibiltzen zenean, eta bentetan ginela (gustatzen baitzitzaion benta zaharren giroa eta gazta), hango marmarrak entzuten nituen. Eta entzun nuen behin bazela urrearen bailara bat. Baina ez nuen gehiago jakin. Eta gero hasi nintzen bideak ibiltzen eta idazten – eta blok zahar bat paratu zidan begien aitzinean, bere boten adinekoa guti goitibeiti- eta entzuten nuen, urre bailararen izena hemen Baztan aldean, eta baita beste aldean, Bidarra aldean ere.

-Eta leku aunitzetan izana zara?

-Bai. Munduko leku asko ezagutu ditut. Ezagutu ditut Jerusalem, eta Norbegia, eta Alemaniako hiriak, baina badakizu gauza bat, nahiago nuen beti hemengo bideak ikusi, eta lainoa, eta izarrak, beti gustatu zaizkit paraje hauek.

-Nik ere nahiago dut hemen egon.

-Ez zait harritzen, hau baita leku izugarri polita, baina hauxe gertatzen zaigu, mutil.

-Zer?

-Hemen gaudela leku paregabea eta zu eta ni bakarrik. Denboren zeinua baita. Hemen: Adan eta Eba bezala. Ba al dakizu zeintzuk ziren?

-Bai, munduko lehen pertsonak, amatxi eta aitatxi bezala bizi zirenak mendian bakarrik.

-Horixe bera! Baina garai batean bide hauetatik –erran zuen bide estua seinalatuz- ibiltzen ziren merkatariak, ikazkinak, gerlariak, artzainak, erromesak...

-Hemendik? –galdetu nion gehigo kontatzeko eskatuz.

-Bai ba. Eta beste mementu batean zure amatxi eta aitatziri galdetuko nien istorio horiei buruz. Baina orain ez naiz horretara etorri.

-Nik galdetuko diet!

-Oso ondo. Mutil piztua zara zu. Bejondeizula! Kuriositatea duzu bidean laguntzen duen konpainia bakarra. Ibiltzera mugitzen zaituena. (Eta ibili gabe ezin dira bideak konprenditu.)

-Zein bidetan? Hemengoan?

-Hemengoan eta bide guztietan, eta baita zure bide propioan ere.

-Ah.

-Eta ba al dakizu non den Urre bailara?

-Ez dakit segur, baina hemen inguruan behar du.

-Ia ba –eta hori erranda, mapa bat atera zuen gizonak eta nigana urreratu zuen.

Nik ordura arte ez nuen inoiz mapa bat ikusi. Ezta maparen gainean paratzeko atera zuen tramankulua ere.

-Zer da hau?

-Hau da brujula bat: iparrorratza –erran zuen-. Eta serbitzen du lainoa denean ez galtzeko.

-Ah, bai?

-Bai. Eta hitz egiten dit ere, eta orain esaten dit Urre bailarak behar duela egon bi erreken lotzean. Ikusten?

Eta begiratu nuen bere paperera eta marrazki bat ikusi nuen, marraz eta izenez beterik. Nik han egiten nituen mila marrazkien aldean arras desberdina zen, eta erreparatu nion eta otu zitzaidan bi errekek bat egiten zuten lekuak behar zuela nik jostatzen nuen aldapa akitzen zen xokoa, maldan behera zena.

-Badakit.

-Zer?

-Nora zoazen. Horra joaten naiz baloia jausten delikan eta amatxik beti erraten dit segituan goitzeko.

-Ah bai?

-Bai. Zenda bada erreka bat eta entzuten da ere bertze tikiago bat urrutian.

-Horiek dira ba Urritzate eta Aritzakun, eta osatzen dute Baztan erreka. Non da leku hori?

-Hor, maldan behera duzu, baina aitzinerago ez dakit zer dagoen. “Basoa” erraten dio aitatzik.

-Nik ere ez dakit zer dagoen; baina orain ikusiko dut. Segituan diozu?

-Bai, aitzinean –erran nuen, eta ikusi nuen pena eta poza bere aurpegian, eta zintzurra busti zuen gure iturriko urarekin.

Ez zuen ordea tragorik hartu, nahiz eta nik, emeki, aitatxik askaren ertzean ipintzen zuen kristalezko basoa luzatu.

-Ez, mutiko, eskerrik asko. Baina ja gutxi geratzen omen zait eta azkenik iritsi zait ardoa hartzeko mementua.

Eta erran zuelikan, zato bat atera zuen motxilatik, zato gris handi bat, eta ardoa edan zuen sekula berriz ikusi ez dudan irrikarekin.

-Nahi duzu laguntzea?

-Horra behera? Ez. Zuk ere izango duzu hazitzean lekuren bat maite duzuna eta ezagutu gabea, eta zainduko duzu buruan eta bihotzean eta joango zara denbora denean.

-Denboren zeinua baita –erran nuen pozik, nire mintzoa osoki konprenitu gabe.

-Bai –kontestu zidan-. Denboren zeinua baita –eta nire ile motza laztandu eta maldan beherat abiatu zen.

Ordurako arratsaldeko lehen orduak paseak ziren jada. Eta erreparatu nion gauza bati: makilarekin laguntzen zela eta hanka bat arrastaka eramaiten zuela eta bestea xuxenago.

Amatxi etorri zenean hori kontatu nion beste gauzen artean.

-Ibiltzen zen horrela –erran nion hanka arrastaka eramanez.

-“Maingua” erraten zaio.

-Hori da! Nik uste, amaxi, izaten al zela egona zelakotz bide guztietan eta botak ere hautsita zituelakotz.

Amatxik entzuten zidan, baina gehigo begiratzeko zuen maldan behiti, sasiek eta iratzeek bi erreka tikiak estaltzen zituzten lekurat.

Nik ez dakit zergatik, baina amaxiren begirada eta tristura nabaritu nuen, eta jakin nuen zerbait pasten ari zena, pagoen itzalak luzatzen eta fintzen hasiak zirela, baina nire gogoa ezgaitza zela hortaz jabetzeko.

-Amatxi -erran nion nigarrez.

-Zer duzu?

-Laster ilunduko du, ezta?

-Bai.

-Eta lainoa sartuko da?

-Bai, hagitz laster gainera.

-Ba, hemen utzi du marrazkia eta makina, eta erran dit lainoetan bidea topatzeko zirela.

Amatxik makurtu eta jaso zituen. Ez zekien deus gauza horiei buruz, baina bere bekokia belztu beharrean lasaitu egin zen, errezotan zegoelikan bezala.

-Eramango al diot makina?

-Zuk, muttikoa?

-Laguntza beharko du.

-Ezin diogu lagundu. Ez baitu laguntzarik behar.

-Agian bai –erran nuen eskuak luzatuz-. Ni joanen naiz.

-Norat?

-Urre bailararat.

-Zu? –erran zuen amaxik ilea orrazten zidalarik irrifar batekin-. Ezin duzu, muttikoa. Zu joan? Ai ama! Zaude oraindik guri-guria!

-Eta ez dugu ikusiko?

-Ez –erran zuen amaxik, eta gibelerat joan zen bizkarra emanik.

-Zergatik?

Amaxik ordea ez zidan erantzun.

Ilea askatu eta behiak sartzen laguntzeko erran zidan. Aitatxi laster iritsiko zela eta baserrirat sartzeko. Gauak irentsi behar gintuela Gorramendiren magaletik.

SATANDERIA